

euskaldunon istorioak



'Los Ferrones' artelana. Haizeola bateko lanaren idealizazioa Ricardo Barojaren margolanean (1941ean datatua).

Nafarroako burdingintzak lotura zuzena izan zuen gainontzeko euskal lurraldeetan garatutakoarekin, eta, Gipuzkoako ekoizpenaren luzapen gisa ulertu bada ere, industria gune nagusien itzalean jarraitzea ahalbidetu zioten berariazko ezaugarriak izan zituen.

Malen Lizarraga-ren erreportaia Argazkiak:

Burdinaren ekoizpena Nafarroan XVI eta XVIII. mendeen artean: Bizkaia eta Gipuzkoaren itzalean ondutako industria

BURDINAREN ekoizpenak izugarritzko garrantzia izan zuen Nafarroako erreinua-
ren iparraldean, eta, zehazki, isuri atlantikoko herrietan. Burdina ekoizti zen gainontzeko iberiar penintsulako eskualdeen antzera, Nafarroan ere burdinarekin eta horren erauzketarekin lotuta aurkitutako lehenengo aipu historikoak XIII. mendearen bukaerakoak dira: Nafarroako Artxi-
bo Nagusia da horien gordeleku.

URA, SUA ETA LURRA: BURDINA ERALDATZEKO BEHARREZKO ELEMENTUAK
Burdina lurrazalean aurki dezakegun elementu geokimiko ugarienetakoa bada ere (ugariena aluminioaren atzetik), bere erabilera berantiarra izan zen gainontzeko metalekin konparatzen bada. Honen arrazoia burdin mearen fusio tenperatura altua da. Izan ere, brontzea edo kobreak ez

bezala, burdinak oso tenperatura altuak behar ditu urtze puntura iristeko. Hortaz, nola ekoizten zuten burdina gure arbasoek? Euskal Herrian bakarrik XIX. mendean eta labe garaiei esker zabaldu zen burdina urtzeko teknologia behin-betikoz. Behe Erdi Aroan eta Aro Modernoan, burdina hidraulikoak izan ziren burdina eraldatu zutenak. Eta, beraz, hiru elementu ziren beharrezkoak: ura, makina hidraulikoei eragiteko; sua, egur-ikatzaren beroarekin minerala berotzeko; eta lurretik lortutako burdin-mea burdin bilakatzeko. Burdina hidraulikoen inguruko lehenengo albisteak XIII. mende bukaerakoak izanagatik, ez ziren zabaldu eta finkatu XV. mendera arte. Denbora tarte hau aldaketarako trantsizio izan zen, eta mendiko oletan ekoiztutako burdina, erreka bazterretan kokatutako lantegietan eraldatzen hasi ziren.



Urto (Leitza) burdinolaren antaparen aztarnak. Argazkia: Malen Lizarraga

MEATZARITZA: TOKIKOTASUNAREN GARRANTZIA Nafarroako burdinolek berariaz izan zuten ezaugarri bat, gehienetan, tokiko mineraletik hornitu zirela izan zen. Eta, XVI eta XVIII. mendeen artean, ezbairik gabe, tokiko meatzaritzak izan zuen garrantziaren lekuko dira jaso diren meategien aipu guziak. Nafarroako tokiko meatzaritzak berebiziko papera jokatu zuen bertako burdinolak aurrera ateratzeko. Tokiz-toki aldatu egin zen garrantzia hori, izan ere, baziren Somorrostroko mea eskuratzeko erraztasun gehiago zuten eremuak. Mineral aberatsagoa eta kalitate handienekoa zela jakina da. Batez ere, nabigarriak ziren ibaien alboan edo gertu kokatuta zeuden burdinolak izan ziren horiek. Erraztasun berezia zuten, esaterako, Hondarribiko portutik Bidasoan barrena minerala Montoiako ibai portuan eskuratzen

zuten Bera eta Lesakako burdinolek. Edota Ereñotzuko (Hernani) ibai portutik, Urumean gora, burdin minerala lor zezaketenek. Hala ere, guzi horien gainera itsasoko minerala («mena de la mar» deitutakoa) lortzeko erraztasun eta segurtasun gehiena izan zutenak Urdazubiko San Salbatore premontretar monasterioko fraideak izan ziren, Nafarroako erreinuan Somorrostroko minerala lortzeko errege baimena zuten bakarrak Urdazubiko fraideen burdinolak izan baitziren. 1534ean, Orbara abadeak eginiko eskaeran jasotako 1.500 kintalak, sarri, 10.000 bilakatu ziren. Bizkaiko meategietatik ateratako minerala Donibane Lohizuneraino ekartzen zuten itsasoz, eta Urdazuri ibaian barrena Azkaineraino eramaten zuten, bertako portuan lurreratzeko. Gurdietan kargatu, eta Olazarra burdinolaraino eramaten zuten. 1584an, fraideek Baztango Haranarekin erdibana eraikitako Bakeola burdinolak ere eskubide berbera eskuratu zuen. Eta horrela, gaur egun, abuztuaren Burdinaren Eguna ospatzen dute Urdazubian. Mineralaren garraioa eta fraide, merkataria eta garraiolarien arteko tratua antzesten dute iraganeko praktikak gogora ekarriz.

BASOAREN USTIAKETA KONTROLATUA

Aro Moderno guzian zehar hainbat ekoizpen zentro egon ziren Nafarroan, eta burdingintzak egur hornidura jarraitua behar zuenez, lantegi horiek guztiek ustiaketa estrategia zenbaiten parte izan ziren. Ekoizpenaren intentsitate eta antolaketa eragin zuzena izan zuen basoaren ustiaketa. Tokiko kudeaketa estrategiek, izan espazialak, denborazkoak edo sozialak, basoaren erabilera, ustiaketa eta mozketak moduak arautu eta horien eraberritzea bermatu zuten. Baina basoak burdingintzatik at zeuden beste hainbat behar eta nahiri ere erantzun zien, eta gatazkak izan ziren hura ustiatzeko interesa zuten alderdien artean: nekazaritzan, abeltzaintzan, zurgintzan edota etxeko kontsumorako erabilera.

Nafarroako burdinolek berezko eremuak izan zituzten zehaztuta. Gehienetan, burdinola bakoitzak kokatuta zegoen kontzejuan mugatutako eremu bat izaten zuen esleitua, eta bertatik lortzen zituen egur lehengaiak. Haritzak, pagoak, gaztainondoak eta gainontzeko zuhaitzak tokiko ekonomia-
riaren eta bizimoduaren sostengu izan ziren. Baina ustiaketa beharrak eta zuhaitzen berezko hazkuntza erritmoak ez ziren beti bat etortzen. Horregatik Aro Modernoan zehar zenbait basogintza teknika bereizi ziren azken helburuaren arabera. Zuhaitz tantaia, moarroak (lepatuak) eta txaradiak ziren. Burdingintzak, ororen gainera, jasagarria izan zen basogintza zuen beharrezko: hau da, egur hornidura luzaroan bermatua behar zuen izan. Eta ia XVII. mendearen erdialdera arte burdinolek txarrietatik lortzen zuten egur ikatza.

ERABATEKO ALDAKETAK INSTALAZIOETAN

XVI, XVII eta XVIII. mendeetan aldaketak eta birmoldaketak gertatu ziren instalazioetan, jabetza sisteman, maiztertzean, basoaren kudeaketan, mineralaren hornikuntzan eta beste

euskaldunon istorioak

hainbat jardueretan. XVI. mendea bereziki dinamikoa izan zen, Anizla-rean (gaur egungo Goizueta eta Artikutzak osatuta), esaterako, 1535 eta 1555 bitartean XV. mende erdialdeko instalakuntzen kopurua berreskuratu zuten –XV. mendeko liskarrek eragin zuzena izan zuten burdinolen jardunean–. Baina burdinolak ez zituzten soilik gatazkek mehatxatzen. Burdinola hidraulikoen ezaugarrietako


Bizkaiko meategietatik ateratako minerala Donibane Lohizuneraino ekartzen zuten itsasoz eta hortik Azkaineraino Urdazuri ibaitik

Gehienetan, burdinola bakoitzak kokatuta zegoen kontzejuan mugatutako eremu bat izaten zuen esleitua

bat Behe Erdi Aro eta Aro Moderno guzian zehar, instalazioen ahuldadea izan baitzen. Erreken ur goraldien eta ustekabeko suteen aurrean bereziki ahulak ziren. Eta, horren guziaren gaitetik, olagizon eta olandreen trebezia bera zen burdinolak martxan izaten zituena, edozein izanda ere garaia.

XVI. mende guzian zehar berregin eta eraiki ziren burdinolak. Erreinuaren konkista ondoko urteak bereziki emankorrak izan ziren, baina ez ziren bakarrak izan. Konkistaren aurretik eta ondoren ere konpondu eta berre-raiki zituzten. Eta XVI. mendeko bigarren herenetik aurrera burdinolen inguruko informazioa asko ugaritzen da zentzu guzietan. Batetik, 1535ean, nafar olagizon eta olandreek erreinuko erregeorde zen Diego Hurtado de Mendozarekin, Cañeteko markesarekin, hitzarmen fiskal berri bat sinatu zuten. Konposizio berriaren arabera, aurrerantzean, Gipuzkoa eta Frantziarekin muga egiten zuten burdinolek (erreinuko gehienek) ekoiztutako kintal bakoitzeko 6 marai ordainduko zituzten, eta gainontzeko bidesari, lezta, kuartel eta alkabaletatik aske geldituko ziren. Burdinolen eta erreinuko taulen (garaiko ordainlekuen balio-kideen) arduradunen artean sortutako liskarrari akabera eman eta auzitegietan jarraitzea ekiditeko konponbidea izan zen.

Bestetik, burdin produktuen eskaria handia zen garai horretan; Nafa-



Zumarrezta edo Iturbia burdinolaren (Eratsun) oinplanta eta ebakidura 1801eko berreraikuntza planetan.



Burdinaren eguna ospatzen dute abuztuan Urdazubín. Mineralaren garraioa eta salerosketa antzesten dituzte.



Asura eta Zumarrezta burdinolen eta inguruko meategien zehaztasuna Brujas (1641).

roako burdina Atlantikoko merkataritza zirkuitoetan txertatu zen, eta Ameriketara ere euskal burdinarekin batera iritsi zen. Zalantzarik gabe dinamikasun handienetako urteak izan ziren. Gipuzkoar jatorriko merkatarien interesa ere gehiago handitu zen, eta baziren izen handiko pertsonaiak Nafarroako burdinolatan. Pertsonaia horietako asko, gainera, nazioarteko merkataritzan jaiok ziren: Añues, Kruzat, Egin, Ansorena edota Lekedano bezalako izenak.

Burdinolak erabateko eraldaketan ari ziren. XVII. mendeko doikuntzek, esaterako, XVIII. mendeko errentagarritasuna ahalbidetu zuten. Burdinolen kopurua murriztu zen, baina ekoizpena handitu zuten. Instalazio hobeak eraiki zituzten, eta kokapen geografiko egokiena eta finantza ahalmen handiena zutenak biziraun zuten.

BURDINOLAK: HARREMANEN UNIBERTSO ZABALAREN ERDIGUNEA Nafarroako burdinolek mendialdeko komunitateetan zalantza izpirik gabeko garrantzia izan zuten. Izaera askotariko harremanen erdigunea izan ziren. Bizkaiaren eta Gipuzkoaren itzalpean, hau da, ekoizpen gune nagusien periferian garatu izanak nola abantailak, hala oztopoak sortu zizkien. Baina Nafarroan burdinaren produkzioak sendo jarraitzearen arrazoia jardueren dibertsifikazioa izan zen. Biztanleen itxaropen ekonomi-

AUTOREA

MALEN LIZARRAGA OLANO



(1993, Leitza, Nafarroa). Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) doktorea da Historia Modernoan. Euskal Herria, Europa eta Amerika: Loturak eta Harreman Atlantikoak ikerketa taldeko kidea da. Bere ikerketen subjektua Nafarroako burdinolak XV eta XVIII. mendeen artean izan dira.

koa, inbertsioak eta zereginak biderkatzea, hau da, jardueren aniztasuna, izan zen industriari aurrera jarraitzearen karia. Nekazaritzara, basogintzara eta garraiara bideratutako gizartea zen mendialdekoa (Nafarroako mendialdea, iparralde). Ikazkintza eta meatzaritza familia askoren sostengu bilakatu ziren. 30 eta 50 lagun ingururi ematen zien lana burdinola bakoitzak: ofizialak, morroiak, neska-meak, meatzariak, ikazkinak, itzainak, mandazainak eta abar.

Baina ez zen garrantzitsua izan soilik gizartearen jarduerak dibertsifikatzea, burdinolak berak ere burdina egiteaz baino gehiagoz arduratu baitziren. Larreak errentan hartzen zituzten aziendetzat, kupelentzako oholak eta zirtziluak egiten zituzten, arraunak ere bai, eta, kasu askotan, gaur egun baserri hitzak duen esanahiarekin ere identifikatzen ziren. XV. mendetik aurrera ardiak, ahuntzak eta zerriak izateko eskubidea zuten burdinolek, baina baita baratzeak, fruta arbolak eta laborantza lurak izatekoa ere.

Ekoizpen konplexu osoak ziren beraz; etxebizitza eta errotarekin osatutakoak. XVI. mende bukaeran, Sarasain (Leitza) burdinolako konplexuak San Fermín eskainitako ermita zuen. Ermita delakoan lantegiko ofizialak, ikazkinak eta Leitzalarrean jarduten zuten artzain eta unaiak artatzen ziren. Era berean, 1684an, Zumarrezta edo Iturbia (Eratsun) izeneko burdinolan ardoa, sagardoa, aleak eta arraia saltzeko baimena zuten bertako arduradunek. Burdinolen eragin ekonomiko eta soziala ez zen, beraz, lantegietara bakarrik mugatuta gelditzen, hori dena baino askoz ere gehiago zen. ●



**JAKIN
ESCAPE ROOM**

HISTORIA ZURE ESQUETAN
LA HISTORIA ESTÁ EN TUS MANOS

Aukeratu bi misio hauen artean eta bihur zaitez agente sekretu!! ¡¡Elige entre estas dos misiones y conviértete en agente secreto!!




Gertaera historikoetan oinarritutakoak. Aukeratu: euskaraz edo gaztelaniaz. Basados en hechos históricos. Elige el idioma: euskera o castellano.

NON GAUDE? ¿DÓNDE ESTAMOS?

Tere Verdes Pasabidea z/g. Pasaje Tere Verdes s/n
48007 Bilbao
Sabino Arana Fundazioa

747 488 000
escaperoomjakin.eus

ORDUTEGIA: Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 12:00etara eta 17:30tik 20:30ra. Larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 13:30ra eta 17:30tik 20:30ra.

HORARIO: De martes a viernes de 10:00 a 12:00 y de 17:30 a 20:30. Sábados, domingos y festivos de 11:00 a 13:30 y de 17:30 a 20:30.



